



◆ FUTBOLA

Hernanik 0-1 galdu zuen atzo

Eibarren aurka

Emakumezkoen Ligan, Hernani eta Eibarrek lehenengo postua zuten atzo jokoan eta hori nabari zen zelaian. Oso partidu borrokatua izan zen eta hainbat kaleratze ere izan ziren. Eibarrek 9 jokalarirekin bukatu zuen partidua eta Hernanik 10ekin. Bi taldeak pareko ibili ziren, eta azken minutura arte ez zen iritsi eibartarren gola. Gol eztabaidagarria, gainera, ikusle askoren iritziz, argi eta garbi, jokoz kanpo zegoen-eta jokalaria. Hori horrela, Hernani bigarren dago, Eibar 3 puntutara duela. ■

❖ NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK - 'Atez Ateko hondakin bilketa, Zero Zaborrerako bidean'

Atez Atekoari buruzko jardunaldiak hainbat herritan; Hernanin, ostiral eta larunbatean

Jardunaldien helburua da Atez Atekoari oihartzun zabalagoa eman eta Zero Zabor eredurako bidean, munduko beste hainbat lekutan planteatzen diren urratsak ezagutaraztea.

Horretarako, Balearretako, Italiako eta Kataluniako adituak izango dira hizlari.

GIPUZKOAN eta Euskal Herri mailan, Atez Atekoari oihartzun zabalagoa emateko asmoz, Nazioarteko Jardunaldiak antolatu dituzte Hernani, Oiartzun, Urnieta eta Usurbilen hondakinen inguruan lanean ari diren boluntario taldeek. Lau Udalek eta San Markos Mankomunitateak ere parte hartu dute. *Atez Ateko Hondakin bilketa, Zero Zaborrerako bidean* jardunaldiok ostiraletik igandera bitarte izango dira; Hernanin, ostiral eta larunbatean.

«Gure herrietara egokien aplikatzeko ereduak»

Atez Atekoari oihartzun zabalagoa emateaz gain, Zero Zabor eredurako bidean, munduko beste hainbat lekutan planteatzen diren urratsak ezagutarazi nahi dira. Eta Udal agintari eta teknikariek Katalunian, Balearretan eta Italian aurkitu dituzte gure herrietara egokien aplikatzeko ereduak, antolatzaileek azaldu dutenez.

Hala azaldu dute: «Herrialde horietan, oso aurrerata daude Atez Ateko bilketaren emaitzak hobetzeko urratsetan, hondakinak murriztean bezala, kosteak era zuzenagoan banatzean eta beste». Hori horrela, jardunaldietako hizlariak herrialde horietako adituak izango dira.

«Gonbidatuta daude Gipuzkoako eta orokorrean Euskal Herriko Udal hautetsi eta teknikariak, ingurumenaren aldeko talde eta erakundeak, eta hondakinen kudeaketa burutsuago baten kezka duten herritar guztiak».

Jardunaldietarako, aurretik izena ematea hobe Jardunaldiak antolatzeaz arduratu direnek, gonbitea luzatzen diete Gipuzkoako eta orokorrean, Euskal Herri osoko Udal hautetsi eta teknikariei, ingurumenaren aldeko mugimenduetan lanean ari diren talde eta erakundeak, eta hondakinen kudeaketa burutsuago baten kezka duten herritar guztiak.

Jardunaldietarako, aurretik izena ematea gomendatu dute. Honako helbideetan eman behar da izena: www.hernaniatezate.net, <http://atezate.oiartzun.org> edo www.usurbil.net/atezate.

Horrez gain, hitzaldi guztiak gaztelaraz eta dohainik izango direla jakinarazi dute. ■

JARDUNALDIETAKO HIZLARIAK:

- **Assumpta Boba Caballé:** Associació de Municipis Catalans per a la Recollida Porta a Porta elkarteko zuzendaritzakoa, Argentonako zinegotzia.

- **Roberto Cavallo:** Mikrobiologoa, 15 urtez Udaletan hondakinen bilketa selektiboan lanean ari den ERICA kooperatibako kidea, Zero Waste (Zero Zabor) ideiareneko teoriekoetako. Italiako Alba-Cuneon bizi da.

- **Rossano Ercolini:** Zero Waste mugimenduko kide den Ambiente Futuro elkarteko kidea. Italiako Capannorin bizi da.

- **Ignasi Puig Ventosa:** Ingeniaria, ENT Environment-eko kidea, hondakinen gaikako bilketen azterketa, antolaketa eta hobekuntzan aditua.

- **Josep Maria Tost Borrás:** Associació de Municipis Catalans per a la Recollida Porta a Porta elkarteko lehendakaria. Riudecanyes-ko alkatea.

EGITARUA:

Ostirala 26: ilunabarreko 19:30etan, hitzaldiak: *Hondakinen Atez Ateko bilketa, esperientziak eta etorkizuneko erronkak*. Hernanin (Sandiusterrin): Ignasi Puig Ventosa. Oiartzunen (Pleno aretoan): Josep Maria Tost Borrás. Urnietan (Lekaion): Assumpta Boba Caballé. Usurbilen (Sutegin): Roberto Cavallo.

Larunbata 27: Hernanin (Sandiusterrin) goizeko 09:30etatik 13:30etara, hitzaldiak eta mahaingurua: *Hondakinen Atez Ateko bilketatik Zero Zaborrerantz*. Parte hartzaileak: Assumpta Boba Caballé, Roberto Cavallo, Rossano Ercolini eta Josep Maria Tost.

Igandea 28: Usurbilen goiz osoan: Atez Ateko bilketaren urteurren festa.

◆ BOLEIBOLA

Mutilek irabazi eta neskek galdu

Mutilek atzeratutako bi partidu jokatu dituzte asteburuan eta bi garaipenekin eman diote bukaera denboraldiari: Hernani 3-0 Navarvoley; eta Hernani 3-0 Santanderina. Neskek berriz, galdu egin zuten atzo liderraren aurka. Murillo 3-0 Hernani. ■

❖ CHILLIDA LEKU

Sarrerak merkeago gaur, astelehen guztietan bezala

Chillida Leku museoaren 10garren urteurrena dela eta, urtea bukatu bitartean, astelehenetako prezioa 4,5 euro izango da; orain arte 8,5 euro zen. Jaiegunetan lehengo prezioa mantenduko da (apirilak 5, azaroak 1, eta abenduak 6). ■

❖ DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Batzar orokorra ostiralean

Dobera Euskara Elkarreak jakinarazi du batzar orokorra egingo duela ostiralean. 19:00etan izango da Doberan bertan (Larramendi kalea, 11). ■

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI -



Telefonikako banatzaile ofiziala

MARTXOAREN 22AN HERNANIN TB ANALOGIKOAREN APAGOIA!

LTD - TDT-ko Laguntza eta Zerbitzu tekniko propioa eta espezializatua

Aste honetan arratsaldean 21:00ak arte irekita



TELEBISTAK LTDREKIN (TDT) 195€TIK AUERRERA

LTD - TDT Sintonizatzaileak, punta puntako markak



Etxean instalatuko dizugu edo aurretik instalatuta entregatuko dizugu

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauz:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Astea giro lasai eta atseginarekin hasiko dugu. Ostarteak nagusi izango dira eta temperatura antzeko, epel mantenduko da. Gauean freskatu egingo du.

BIHAR Giro eguzkitsuarekin hasiko dugu eguna, baina bukaera aldera, lainoak sartu eta zaparradaren bat bota dezake. Min.9° / Max.20°.

❖ TOLAREA SAGAROO KOFRADIAREN XV. KAPITULUA



Ricardo Remiro, Esther Esparza, Maixabel Setien eta Kontxi Zubeldia (kofradiako lehendakaria).

Hiru kofrade berri sagardoaren alde lan egiteko prest

Maixabel Setien, Esther Esparza eta Ricardo Remirok zin egin ondoren, Ozenki Abesbatzak saioa eskaini zuen. 21 kofradia bildu ziren atzokoan.

ATZOTIK hiru kofrade berri ditu Tolarea Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Kofradiak sagardoaren alde lan egiteko prest: Maixabel Setien *Mokoko Maixabel*, Esther Esparza aktore eta kazetaria, eta Ricardo Remiro gazta egilea. Biterin bildutako herritarren aurrean, hirurek gogoz eta esker onez egin zuten zin beti defendatuko dutela sagardoa.

Esparzak, gainera, herrien arteko elkartasuna izan zuen ahotan: «Tafallan, nire jaiote-

rrian, ez dugu sagardorik, bai ordea ardoa. Biak maite ditut, Gipuzkoa eta Nafarroa bezala. Ospa dezagun gaur, gure herrien elkartasuna».

Ozenki Abesbatzaren saioa, ekitaldia borobiltzeko Sagardoarekin eztarria goxatzeaz gain, belarriak goxatze-ko aukera ere izan zen Ozenki Abesbatzaren eskutik. Hiru abesti eskaini zituzten, eta benetan saio ederra izan zela-
ren adierazle, amaieran jaso-

tako txalo zaparrada.

21 kofradia

Urtero bezala, atzokoan ere, Euskal Herritik eta urrutia-
gotik etorritako kofradiako ordezkariak izan ziren Hernanin. Izen-
datze ekitaldiaren aurretik, he-
rrian barrena ibili ziren txistula-
riek lagunduta: Ordiziako gaz-
ta, Senpereko amuarraina, Fran-
tziako montillona, Sakana-
ko txistorra, Landetako pate...
Ondoren, guztiak Larre-Gai-
nera joan ziren bazkaltzera. II

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA		
E. Ohorezko Maila	Ordizia-Hernani	0-1
E. Liga-Igoera	Hernani-Eibar	0-1
L. Erregi. Igo. F.	Martutene-Hernani	1-1
Jubenila. 1 Igo F.	Hernani-Allerru	2-2
Jubenila. 1 Igo F.	Hernani-Martutene	1-0
Kadeteak. O. maila	Eibar-Hernani	1-1
Kadeteak. 1 maila	Hernani-Añorga	0-3
Kadeteak. F-11	Lagun Onak-Hernani	0-1
Infantila O. maila	Hernani-Sanse	1-2
Infantilak O. maila	Hernani-Arrasate	2-0
Infantil Txiki	Hernani-Hondarribia	1-5
Infantil Txiki	Hernani-Bergara	1-4
ERRUGBIA		
Senior (Urrezko Kopa)	Hernani-Ordizia	12-31
Jubenilak (E. Liga finala)	Hernani-Getxo	11-5
ERREMONTEA		
1go partidua 35era	Etxabe II-Barrenebexa IV/ Zulaika-Zubiri	35-16
2. partidua 40ra	Uterga-Urrutia I/ Juaristi-San Miguel	40-34
3. partidua 40ra	Etxeberria IV-Ion/ Matxin III-Baleztena	31-40
4. partidua 30era	Matxin IV-Zubizarreta/ Endika-Agirrezabala	30-24
BOLEIBOLA		
Neskak	Murillo-EHU Hernani	3-0
Mutirikak	EHU Hernani-Navarvoley	3-0
Mutirikak	EHU Hernani-Santanderina	3-0
XAKEA		
Gip 1. maila	Hernani A-Andoain	3-1
Gip 2. maila	Bergarazaleak-Hernani B	2-2
ARETO FUTBOLA		
1. maila	Zaldibia-Yone Boutique	7-2

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Hernanin (Tilos-etan) Duplex-a salgai estrenatzeko (eraikuntza berria). 130m², 3 logela, 2 komun, sukaldia (osagai guztiekin) eta igogailua. 442.000€.
Deitu: 656 316 031.

Lokala alokatzen da kale Nagusian, 50.zkia. Entrepilata da. 17m² ditu, komuna eta lababoa.
Deitu: 943 55 03 37 / 943 27 78 51

Pixua salgai Lizeaga kalean. 3 gela, sala, sukaldia eta komuna. Deitu: 670 553 703.
Etxeko lanak egingo nituzke, baita haurrak zaindu edota adineko pertsonak zaindu.
Deitu: 653 73 36 20 / 943 33 43 01

Erreferentziadun emakumeak pertsona helduak zaindu edo/eta etxeko lanak egingo nituzke (egunez/gauzez). Deitu: 664 336 906.

Pisua salgai Karabelen. 60m², 2 logela, sala, sukaldia eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.

Pianoa salgai. Yamaha U1F modeloa, bigarren eskuko. Ongi zaindua. 2.500 euro.

Deitu: 629 763 041.

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, hilaetako eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan. "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentrua. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebra, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Anziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Alicia C.C. Modu pertsonalean eta profesionalen garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlazioak, Flores de Bach, hipnosia...
Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ANA RODA IRAOLA

Mundua hankazpian
pitzatzen ikusi arren,
ez hintzenala isilduko
agindu hunan.
Gogoratzen?
Segi horrela Ana!
Xamur bezain tinko.



LANGILE IKASTOLA
GURASO, LANGILE ETA IKASLEAK.

Hernanin, 2010eko martxoaren 22an

ANA RODA IRAOLA



Hamar urte elkarrekin igaro ondoren,
gure gelako handiena joan zaigu eta,
ez ginen azken agurra eman gabe
geratuko!! AGUR ANA.
Mila esker denagatik eta muxu handi bat.

LANGILE IKASTOLAKO ALOÑA, ARKAITZ,
LAMIAK, BASAJAUN ETA BESTE GUZTIAK.

Hernanin, 2010eko martxoaren 22an

ANA RODA IRAOLA

Muxu haundi bat.

MEABEKO ZURE HAUR ETA
GURASOAK.



Hernanin, 2010eko martxoaren 22an

ANA RODA IRAOLA

Zuk emandako maitasun
eta alaitasuna
gure bihotzetan gordeko
dugu betirako.

IKASTOLAKO AZKEN BI URTETAKO
ZURE POTTOKOAK.



Hernanin, 2010eko martxoaren 22an